# Zurriolako Ataria

65. alea — 2019-06-14

## Ikasturte Amaiera HHn



Era guztietako ekintza eta jarduerak egin ditugu azken egun hauetan. Adibidez ur festan, aurpegi margoketan, antzerkian edota Ulian ibili dira Ikastolako ttikienak.

## LHk Ategori: gero arte!



Ategorrietari agur esateko ekitaldi zoragarri bat prestatu dute 4. mailako ikasleek. Bertan izan dira antzezle, dantzari, musikari, mago, zientzilari eta raperoak. Ondoren Ategoko paretak margotu dituzte beraien arte-lan mezuekin. Denen artean, geroarte zoragarri bat esan diote orain arte etxe izan duten eraikinari. Hurran, FIE eta esku-pilotan aritu dira, besteak beste.

## Ikasturtea amaitzen DBHn



Ekainean hainbat ekintza burutu dira bigarren hezkuntzako etapa honetan, besteak beste, esgrima ikastaroa, orientazio saioa mendian, paddle txapelketa, ur eta lehorreko sorospena, ...
Ekintza hauekin ikasturtea modu atsegin batean amaitu nahi izan dugu, bide batez, gela barnean landu ezin diren hainbat eduki eta konpetentzia gelatik kanpo garatuz.

## Batxi2koen agurra



Ekainaren 7an 2. Batxilergoko ikasleak agurtu genituen guraso, ikasle eta irakasleak bildu zituen ekitaldian. Penaz eta hunkituta, baina harrotasunez ere. Hoberena opa diegu hemendik aurrerako ibilbidean!



**50 URTEZ BIRAKA (sintesi bideoa)**. Hauxe Zurriola Musika eta Dantza Eskolak 50. urteurreneko kantarekin osatu duen bilduma-bideoa. Eskolakoek urte osan egindako lan paregabearen erakusgarri ederra!



**Zurriola Musika eta Dantza Eskola** - HH4 urteko musikako ikasleek ikasturtean zehar egindako musika ariketak ikus daitezke, jolasak, ikurrak, musika tresnak, ...

## OHARRAK / AGENDA:

- **DBH:** Maileguko liburuak ikastolara ekarri. Epea: ekainak 28. Garaiz ekarri ezean, liburuak kobratuko dira.
- **DBH1eko gurasoentzat:** Liburu salmentaren antolaketa.
- **IDAZKARITZAKO ORDUTEGI BERRIA:** Soroa (8:00-15:00) eta Hurra (8:00-15:30). Astelehenetik ostiralera.
- **IRAKURLE(e):** Donostia Kultura. Irakurgai katalogoa.
- **URGULL UDA:** LHko ikasleak. Eskaintza ludikoa.

**ZURRIOLA IKASTOLA IKE**
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587